

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URKABUSTAIZKO UDALA

Epea irekitzea 2025eko Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga kobratzeko

Xabier Álvarez de Arcayak, Urkabustaizko (Araba) udalerriko alkatea naizen honek, hau jakinarazten dut:

2025eko martxoaren 5etik maiatzaren 5era bitarteko egun baliodunetan, egun biak barne, ordaintzeko moduan egongo direla, borondatezko epean, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren 2025eko ordainagiriak.

Ordaintzeko epea:

Borondatezko epea: 2025eko martxoaren 5etik maiatzaren 5era.

Premiamendu aldia: epe hori igarotakoan, ordaindu gabeko kuotak kobratzeko premiamenduko betearazte bideari emango zaio hasiera, hala xedatzen baitute otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zerganak, 28. artikuluan eta Dirubilketarako Arautegiak. Kobratu beharrekoari dagokion errekargua gehituko zaio (ehuneko 10 edo ehuneko 20).

Ordaintzeko lekua eta modua:

Ordainketa helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin behariko baldin eta zerga aurreko urteetako banku kontu berebean helbideratuta badute. udalak izapidetuko du ordainketa. Helbideratutako ordainagiriak 2025eko maiatzaren 5ean kobratuko dira.

Ordainketa bankuan helbideratuta ez daukatenek udalak Kutxabanken edo Banco Santanderren irekita dituen kontuetan ordaindu dezakete borondatezko epean.

Zergadunei ohartarazten zaie komenigarria dela beren zerga zorrak banketxe edo kutxetan helbideratuta izatea. Halaber, nola banku helbideratzeetako altak edo aldaketak, hala gerora jakinarazpenak egiteko helbide aldaketak, Urkabustaizko Udalean izapidetu behariko dira.

Hori guztia jakitera ematen da jende orok jakin dezan.

Izarra, 2025eko otsailaren 13a

Alkatea

XABIER ÁLVAREZ DE ARCAYA